## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**1283**

AGINDUA, 1992ko apirilaren 13koa, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuarena, natur inguruneari buruzko azterlanak egitearen aldeko dirulaguntzen banaketa arautzen duena.

Nekazaritza eta Arrantza Sail honen 1991ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez, natur inguruneari buruzko azterlanak egitearen aldeko laguntza-programa bati hasiera eman zitzaion.

Aipaturiko programak izan zuen erantzuna eta haren ondorioz iaz lortu ziren emaitzak, arrazoi aski dira geroan ere jarraipena emateko programari.

Hori horrela, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Agindu honen xedea azterlanak egiteko dirulaguntzak ematea da. Azterlanenekin zera lortu nahi da:

a) Euskal Autonomi Elkarteko lurra, basa-landaretza eta animaliak hobeki ezagutu, babestu, zaindu edota berreskuratzea.

b) Naturaren babesarekin bat etorriz berrikuntzaren bat dakarren nekazal teknikak saiatzea.

*2. atala.–* Hurrengo baldintza hauek betetzen dituzten elkarte edo elkargoek eska ditzakete dirulaguntzak:

a) Elkarte-egoitza Euskadin izatea.

b) Elkartea legez eraturik egotea.

c) Irabazi-asmorik ez izatea.

d) Elkarte-helburua, naturaren babesa, iraupen edo zaintzarekin zerikusia izatea.

e) Natur agerkariak edota haien erabilera armonikoa aztertzen gutxienez bi urtetan egon izana.

*3. atala.–* Agindu honetan ohartemandako laguntzak ez itzultzekoak dira eta, proposaturiko azterlana burutzearren, honako gastu hauek, ez besterik, ordaintzekoak:

a) Lanarigo kontratazioa.

b) Joan-etorriak, mantenu eta loiamendua.

c) Onuradun Elkarte edo Elkargoen ihardun-gastu arrunta ez den beste edozein gastu arrunt.

d) Ikerketa-gai txikiak erostea, gehienezkoa zenbatekoaren %10a eta 100.000 pta. izanik.

*4. atala.–* Eskaria aurkezten den garaian buruturik edo hasita dauden azterlanak ez dira finantzagai izango.

*5. atala.–* 1. Agindu honek aipatzen dituen subentzioak jaso ahal izateko, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Natur Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa Zuzendaritzari bidali behar zaio eskari-orria: Welling-

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

**1283**

ORDEN de 13 de abril de 1992, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la concesión de ayudas para la realización de estudios y trabajos relacionados con el Medio Natural.

La Orden de 30 de julio de 1991, de este Departamento de Agricultura y Pesca, inició un programa de ayudas para la realización de estudios y trabajos relacionados con el Medio Natural.

La excelente acogida que tuvo el citado programa, así como los satisfactorios resultados que se obtuvieron en su primer año de vigencia, aconsejan su continuación en el futuro.

En virtud de todo lo cual,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Es objeto de la presente disposición la concesión de ayudas económicas para la realización de estudios y trabajos dirigidos fundamentalmente a la consecución de los siguientes objetivos:

a) El mejor conocimiento, conservación, protección y restauración de la gea, flora y fauna silvestres de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) La experimentación de técnicas agrarias novedosas que sean compatibles con la protección del medio natural.

*Artículo 2.–* Podrán solicitar las ayudas las asociaciones o entidades asociativas que cumplan los siguientes requisitos:

a) que su sede social radique en el País Vasco.

b) que figuren legalmente constituidas.

c) que carezcan de ánimo de lucro.

d) que su objeto social se encuentre vinculado principalmente al estudio, defensa, conservación y protección del medio natural.

e) que acrediten una trayectoria de al menos dos años en el estudio de los fenómenos de la naturaleza y/o de su uso armónico.

*Artículo 3.–* Las ayudas previstas en la presente Orden tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables e irán dirigidas exclusivamente a la financiación de los gastos que para la realización del estudio o trabajo se detallan a continuación:

a) Contratación de personal.

b) Desplazamientos, manutención y alojamiento.

c) Otro gasto corriente que no tenga el carácter de gasto de funcionamiento ordinario de las Asociaciones o entidades asociativas beneficiarias.

d) Adquisición de pequeño material de investigación con un límite máximo del 10% de su importe hasta 100.000 ptas.

*Artículo 4.–* No serán objeto de financiación estudios o trabajos ya realizados o cuya realización se encuentre iniciada al momento de presentación de la solicitud.

*Artículo 5.–* 1. Las solicitudes para acogerse a la concesión de las subvenciones a que se refiere esta Orden se formularán en instancia dirigida a la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural del

ton Dukea, 2, 01011 Vitoria-Gasteiz.

2. Eskari-orriak aurkezteko epeak urtero emango dira jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, ekonomi ekitaldi bakoitzaren lehenengo hiru hilabeteren barruan, Natur Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa Zuzendariaren Erabaki bidez.

3. Agindu honen bidez eskainitako laguntzak, urte bakoitzeko ekonomi ekitaldiari dagozkion Euskal Autonomi Elkarteko aurrekontuen pentzutan gauzatuko dira, horretarako kreditu egoki eta nahikorik baldin balego.

4. Eskari-orrian honako xehetasun hauek adierazi behar dira:

a) Elkartearen izena.

b) Helbidea.

c) Ihardute-eremua.

d) Elkarte-helburua.

e) Proposaturiko azterlanaz arduratzen denaren izen-abizenak.

f) Harremanetan jartzeko telefonoa.

g) Banketxeko kontu-zkia., subentzioa helbideratzeko.

5. Eskariarekin batera hurrengo agiri hauek atxekiko dira:

a) Egindako edo egiten ari diren ihardueren laburpen-txostena.

b) Laguntzagai den azterlanaren ezaugarrien berri ematen duen txostena, bide batez gauzatze-urratsak, jarraitu beharreko metodologia, giza-bitartekoak eta baliabide materialak zehaztuz.

c) Azterlana aurrera eramateko behar diren aurrekontuak.

d) Elkarte-estatutuen kopia erkatua edo dagokion erroldako inskribapen-egiaztagiria.

e) Eskegileak sinaturiko zinpeko aitorpena, laguntzagai den azterlanak Eusko Jaurlaritzako beste Sailen edo beste Herri Administrazioen programen konturako ordainik jaso ez duelakoa.

f) Agindu honen laguntzez baliatzea erabakitzen deneko aktaren kopia, baita akta horren aurreko biren kopiak ere, Elkarte edo elkargoaren Idazkariaren egin-bidea daramatelarik.

6. Edonola ere, Natur Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa Zuzendaritzak behar adina argibide nahiz agiri eska diezaioke doakionari, aurkezturiko eskariei bidea eman ahal izateko.

*6. atala.*– 1. Subentzio-eskariak Natur Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa Zuzendaritzak izapidatu eta ebatziko ditu, informe teknikoa egin ondoren.

2. Azterlanak hautatzerakoan, honako ezaugarri hauek hartuko dira kontutan:

a) Lurra, basa-landaretza eta animaliak ezagutu, babestu, zaindu eta berreskuratzearekin zerikusia izatea eta interesgarritasuna.

b) Proposamenaren eraginpeko eremuak duen garrantzia, kalitate eta kopuruaren aldetik.

Departamento de Agricultura y Pesca, C/ Duque de Wellington 2.– 01011 Vitoria-Gasteiz.

2. Los plazos para presentación de solicitudes serán publicados anualmente en el Boletín Oficial del País Vasco, dentro de los tres primeros meses de cada ejercicio económico, mediante Resolución del Director de Ordenación e Investigación del Medio Natural.

3. Las ayudas previstas en la presente Orden serán efectivas con cargo a los presupuestos de la Comunidad Autónoma del ejercicio económico correspondiente, siempre que exista crédito adecuado y suficiente a tales efectos.

4. En la solicitud deberán constar los siguientes datos:

a) Denominación de la Asociación.

b) Domicilio social.

c) Ambito de actuación.

d) Objeto Social.

e) Nombre y apellidos del responsable del estudio o trabajo propuesto.

f) Teléfono de contacto.

g) Número de cuenta bancaria donde domiciliar la subvención.

5. La solicitud irá acompañada de la siguiente documentación.

a) Resumen de las actividades realizadas o en curso por la Asociación o entidad asociativa solicitante.

b) Memoria descriptiva de las características del estudio o trabajo a auxiliar, con definición de sus fases de ejecución, metodología a emplear y medios humanos y materiales necesarios.

c) Presupuesto necesario para acometer el estudio o trabajo a auxiliar.

d) Copia de los estatutos sociales o certificado de inscripción en el Registro correspondiente.

e) Declaración jurada firmada por el solicitante en la que manifieste que el estudio o trabajo a auxiliar no ha sido objeto de financiación con cargo a programas de otros Departamentos del Gobierno Vasco u otras Administraciones Públicas.

f) Copia del Acta que recoja el acuerdo de acogerse a las ayudas de la presente orden y de las 2 inmediatamente anteriores diligenciadas por el Secretario de la Asociación o entidad asociativa.

6. En todo caso, la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural podrá recabar del solicitante la información y documentación complementaria que estime necesaria para la resolución de las solicitudes presentadas.

*Artículo 6.*– 1. Las solicitudes de subvención serán tramitadas y resueltas, previa emisión de informe técnico, por la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural.

2. Los criterios prioritarios para la elección de los estudios o trabajos serán los siguientes:

a) Interés y especificidad del tema propuesto en el fomento del conocimiento, conservación, protección y restauración de la gea, flora y fauna silvestres.

b) Importancia cualitativa y cuantitativa del ámbito de actuación de la propuesta.

c) Azterlanak egiterakoan metodologia berriak erabiltzea.

d) Proposamena egiten duten taldeen gaitasun eta eskarmentu tekniko eta zientifikoa.

3. Subentziorik eman den ala ez jakineraziko zaio eskegileari. Era berean, eta Natur Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa Zuzendariaren erabaki bidez, Agindu honen arabera emandako subentzioen zenbatekoak eta onuradunen zerrenda emango dira argitara.

*7. atala.*– 1. Laguntzen dirukopurua, aurkeztu eta onarturiko aurrekontuen %100era irits daiteke.

Edonola ere, azterlan bakoitzeko ez da bi milioi bostehun mila (2.500.000 PTA) pezetatik gora emango. Bestalde, Elkarte edo Elkargo bakoitzak gehienez jaso dezakeen dirukopurua, sarituriko azterlan guztiengatik, ez da bost milioi (5.000.000 PTA) pezetatik gorakoa izango.

2. Subentzioaren dirukopurua, hurrengo xehetasun hauek kontutan izanda finkatuko da:

a) Azterlanak duen kalitate edo interes zientifikoa.

b) Natur ingurunea ezagutu, babestu, zaindu eta egokitzeari begira, azterlanak ekar ditzakeen onurak.

c) Azterlana, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ihardun-moduekin bat etortzea.

d) Elkarte beraren zenbat azterlan hautatu diren orain arte.

e) Xede horietarako aurrekontuetan dauden izakinak.

*8. atala.*– 1. Eskegileari subentzio bat eman zaiola jakinerazi ondoren, eskegileak dirulaguntza onartzen duenentz erantzun behar dio erakunde emaleari zortzi eguneko epean.

2. Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren kontura diren subentzioen berme eta itzulketen erregimena arautu eta Aurrekontuen kudeaketan partehartzen duten entitate laguntzaileen baldintza, erregimen eta betebeharrekoak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 2.2 atalean ohartemandako betekizunak bereganatzen ditu onuradunak, subentzioa onartzen badu.

*9. atala.*– 1. Subentzioa onartzen denean, beraren %30a ordaintzen da, gainerakoa azterlana erabat burutzen denean.

2. Egileak lanaren hiru kopia eta erabilitako oinarrizko datuak eman arte ez zaio subentzioa oso-osorik ordainduko. Halaber, lana nola burutzen ari den eta subentzioaren dirua benetan xede-gaietan inbertitzen den azaltzen duen txostena aurkeztu beharra egongo da.

*10. atala.*– 1. Subentziogai diren azterlanak hamabi hilabeteren epean burutu behar dira, onuradunak subentzioa onartzen duelako jakinerazpena jasotzen denetik hasita.

2. Natur Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa Zuzendaritzak azterlanaren urratsei jarraituko die. Hori dela-ta, hilabeteren epean onuradunak lan egiteko plan zehaztua aurkeztuko du, baita aurkeztu ere

c) Aplicación de nuevas metodologias en los estudios y trabajos.

d) Capacidad y experiencia técnica y científica de los equipos que realizan la propuesta.

3. La concesión o denegación de subvenciones se notificará a los interesados. Igualmente, por Resolución del Director de Ordenación e Investigación del Medio Natural se hará pública la relación de beneficiarios y cuantía de las subvenciones concedidas al amparo de la presente Orden.

*Artículo 7.*– 1. El importe de las ayudas podrá cubrir hasta el 100% del presupuesto presentado y aprobado.

En cualquier caso, las dotaciones unitarias no sobrepasarán la cuantía de dos millones quinientas mil pesetas (2.500.000 ptas), por estudio o trabajo beneficiado. El importe máximo a percibir por Asociación o ente asociativo por todos los trabajos o estudios beneficiados tampoco sobrepasará la cuantía de cinco millones de pesetas ( 5.000.000 ptas).

2. La cuantía de la subvención, en cada caso, se graduará en atención a las siguientes circunstancias:

a) La calidad o interés científico del estudio o trabajo.

b) Ventajas que sus resultados pueden aportar al conocimiento, conservación, protección y restauración del medio natural.

c) La adecuación del estudio o trabajo a las líneas de actuación del Departamento de Agricultura y Pesca.

d) Número de estudios o trabajos seleccionados a dicha Asociación o Grupo.

e) Las disponibilidades presupuestarias existentes para estas finalidades.

*Artículo 8.*– 1. Notificada la concesión de una subvención al beneficiario éste deberá comunicar al órgano concedente, en el plazo de 8 días, la aceptación o no de la misma.

2. La aceptación por el beneficiario de la subvención concedida supone la asunción de los compromisos establecidos en el artículo 2.2 del Decreto 698/1991, de 17 de Diciembre, por el que se regula el régimen de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades colaboradoras que participan en su gestión.

*Artículo 9.*– 1. A la aceptación de la subvención se abonará el 30% de la misma y el resto a la completa realización del estudio o trabajo.

2. El abono completo de la subvención queda supeditado a la entrega por el beneficiario de tres copias del estudio o trabajo auxiliado acompañadas de los datos básicos utilizados en su realización. Asimismo, el beneficiario habrá de presentar un informe en el que detalle el desarrollo del mismo y que el importe de la subvención se aplica a la finalidad para la que se concedió.

*Artículo 10.*– 1. Los estudios y trabajos objeto de subvención habrán de realizarse dentro de los doce meses a partir de la fecha de la recepción de la comunicación del beneficiario aceptando la subvención concedida.

2. Por la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural se realizará el seguimiento del estudio o trabajo a realizar. A tal efecto, el beneficiario habrá de presentar en el plazo de un mes el plan desa-

hiru hilabetetan behin txosten bat lana nola doan azaltzeko.

*11. atala.*– Agindu honen bidez eskainitako laguntzak bateraezinak dira, gainerako Herri Administrazioek edo Erakundeek emandakoekin.

*12. atala.*– 1. Agindu honen arabera saridun suertatu diren azterlanak argitaratzeko eskubidea Nekazaritza eta Arrantza Sailak izango du urtebeteko epean, lana ematen denetik hasita.

2. Argitalpena gauzatuko balitz, lehenengo argitaraldiaren ustiapen-eskubideak Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioarenak izango lirateke, saridun autorea haien transmisioa egitera beharturik geratzen delarik.

*13. atala.*– Subentzio-jasotzaileak emate-erabakian edo Agindu honetan ezarritako epeak edo baldintza teknikoak betetzen ez baditu, Natur Ingurunearen Antolakuntza eta Ikerketa Zuzendaritzak hasitako espedientea izapidatu ondoren eta interesdunari entzun eta gero, subentzioaren galera ekarriko lioke, baita ekarri ere orain arte jasotako ordainak itzultzeko beharra Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari bi hilabeteren epean, bidezko diren gainontzeko akzioen kalterik gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezartzen den bezala.

Aipaturiko kopuruak dirusarrera publikotzat joko dira, lege-ondorio guztietarako.

ALDI BATEKO XEDAPENAK

*Lehena.*– Eskari-orriak aurkezteko epea ekitaldi honetan hiru hilabeterena izango da, Agindu honek indarra hartzen duenez geroztik hasita.

*Bigarrena.*– Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 1991ko uztailaren 30eko Aginduaren arabera bideraturiko espedienteak era berean jarraituko dute azken izapidea amaitu arte.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*– Natur inguruneari buruzko azterlanak egitearen aldeko dirulaguntzen banaketa arautzeko den Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 1991ko uztailaren 30eko Agindua indargabetzen da.

*Bigarrena.*– Agindu honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko apirilak 13.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

rrollado de trabajo y trimestralmente informe sobre la marcha del mismo.

*Artículo 11.*– Las ayudas que se establecen en esta Orden serán incompatibles con cualesquiera otras que pudieran otorgarse por otras Administraciones Públicas, Entidades u Organismos.

*Artículo 12.*– 1. El Departamento de Agricultura y Pesca se reserva el derecho a la publicación de los estudios y trabajos que hubiesen sido objeto de ayuda conforme lo dispuesto en la presente Orden, durante el período de un año a contar desde su entrega.

2. Si la publicación se hiciera efectiva, los derechos de explotación de esta primera edición pertenecerían a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, comprometiéndose el autor subvencionado a realizar su transmisión de forma gratuita.

*Artículo 13.*– El incumplimiento por parte del beneficiario de la subvención de los términos del estudio o trabajo aprobado o de las condiciones técnicas establecidas en la resolución de concesión o en la presente Orden, determinará, previa tramitación del oportuno expediente incoado al efecto por la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural y audiencia al interesado por un período de quince dias, la pérdida la subvención y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco en el plazo de dos meses, las cantidades percibidas, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, todo ello de acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de Diciembre.

Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

DISPOSICION TRANSITORIAS

*Primera.*– El plazo de presentación de solicitudes para el presente ejercicio será de tres meses a partir de la entrada en vigor de la presente Orden.

*Segunda.*– Los expedientes tramitados conforme a lo dispuesto en la Orden del Consejero de Agricultura y Pesca de 30 de Julio de 1991, se seguirán rigiendo por lo establecido en la misma hasta su archivo definitivo.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Queda derogada la Orden de 30 de Julio de 1991, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la concesión de Ayudas para la realización de Estudios y Trabajos relacionados con el Medio Natural.

*Segunda.*– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletin Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 13 de abril de 1992.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.